

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

4697

133/2018 DEKRETUA, irailaren 18koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren aldaketa, paisaiaren zehaztapenei zehaztapenei buruzkoa.

1.— Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartu zen urriaren 26ko 226/2011 Dekretuaren bidez. Lurralde-plan partzial horrek antolamendu integrala ezartzen du eremu funtzional osorako, eta udal-mugarte hauek hartzen ditu: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza Harana, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz eta Zalla.

2.— Aldaketa hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzak sustatu du, eta Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialean paisaiaren zehaztapenak txertatzea du helburu. Arlo Funtzionaleko paisaiaren kalitate-helburuak garatzen dituzten zehaztapen horiek lurralde-plan partzialean gomendio-izaerarekin txertatuko dira.

3.— Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuak 2016ko otsailaren 22an emandako Agindu bidez aldaketa hori funtsezkoa ez zela adieraztea xedatu zuenez, aldaketa hori izapidetzerakoan irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan, aurreikusitako izapideak egin dira. Dekretu horretan arautu zen funtsezkoak ez diren Lurraldearen Antolamendurako Jarraibideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen aldaketak onartzeko prozedura.

4.— lurralde-plan partzialaren aldaketa horrek antolamendu-arauak I. eranskin gisa eta abiazio zibilari buruzko berariazko sektore-araudia II. eranskin gisa hartzen ditu barne.

5.— Ingurumen-ebaluazio horrekin lotuta, Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2017ko uztailaren 18ko Ebazpenaren bidez, aztertzen ari garen lurralde-plan partzialaren aldaketa puntualari buruzko ingurumen-txosten estrategikoa eman zen. Horretan, azaldu zuen ez dela ingurumenaren gaineko inpaktu esanguratsurik aurreikusi, eta kontuan hartutako zenbait kontsiderazio nabarmendu zituen.

6.— Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari dagokio planaren aldaketa hau behin betiko onartzea, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekreturen 4.7 artikulua arabera.

Ondorioz, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko irailaren 18an egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— 1.— Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren 2. aldaketa, paisaiaren zehaztapenei buruzkoa, behin betiko onartzea. Horren antolamendu-arauak dekretu honen I. eranskinean txertatu dira, eta abiazio zibilari buruzko berariazko sektore-araudia II. eranskinean.

2.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egoitza elektronikoan eskuragarri daude lurralde-plan partzialaren aldaketa osatzen duten dokumentuak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 18an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

IRAILAREN 18KO 133/2018 DEKRETUA, I. ERANSKINA

ANTOLAMENDU-ARAUAK

(ANTOLAMENDU-ARAU HAUEK 3 ERANSKIN DITUZTE)

1. artikulua.– Paisaia-zehaztapenen helburua.

1.– Paisaiaren zehaztapen hauek gomendiozko xedapenak dira, eta Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionaleko paisaiaren kalitate-helburuak garatzea du helburu.

2.– Paisaiaren zehaztapenak www.ingurumena.net Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren web orrian eskuragarri dagoen Balmaseda-Zalla (Enkarterri) paisaiaren katalogoan oinarrituta daude.

2. artikulua.– Paisaia-unitateak.

1.– Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionalak hamar paisaia-unitate bereizten ditu. Eremu horiek paisaiaren aldetik bat datoz paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeke araudia ezartzea xede duen paisaiarekin.

2.– Eremu funtzionaleko hamar paisaia-unitateak hauek dira:

- a) Armañon-Alen.
- b) Galdames-Sopuerta.
- c) Ganekogorta.
- d) Lanestosa.
- e) Grumeran-Eretza mendia.
- f) Ordunte mendiak.
- g) Turtzios-Artzentalet-Otxaran.
- h) Gordexola harana.
- i) Kadagua harana.
- j) Karrantza harana.

3.– Paisaia-unitateen mugak I. eranskineko «Paisaia-unitateen mapa»ko grafikoan dago jasota.

3. artikulua.– Paisaiaren Intereseko Eremuak.

1.– Balmaseda-Zalla (Enkarterri) eremu funtzionalean, Paisaiaren Interes Bereziko 16 Eremu identifikatu dira. Horietarako, gomendatzen da Paisaiaren Ekintza Planak egitea paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeke.

2.– Honako hauek dira eremu funtzionaleko Paisaiaren Interes Bereziko Eremuak:

- a) Ibaietako errekaak.

– Kadagua eta Koltza ibaiak – Barbadún.

b) Balio naturala duten eremuak.

– Baso autoktonoko eremuak: Sopeñako artadia, Ordunteko pagadiak, Kalerako pagadiak, Agueraren iturburua, Pandozales – Sabugal eta Remendon hariztia.

– Saldueroko ordokia.

– Peñas Blancas – Eretza.

– Moro harkaitza.

– Mello mendia.

– Ubieta/Zipar mendia.

– Peñalba troka Turtziozen.

c) Balio kulturala duten eremuak.

– Meatzaritza-guneak.

– Galtzada erromatarra.

– Gordexolako haranaren atzealdea.

d) Balio naturala eta kulturala duten eremuak.

– Concejuelo – Larrea.

– Ventoso – Betayo – Alen gailurrak eta Ubaleko larreak.

– Herrerako haizpitarteak.

e) Hiriguneak.

– Kadaguako harana eta Sopuertako harana.

– Ambasaguas.

f) Gizakien jarduerak paisaian duen eragina.

– Galdamesko, Cadenako, Sopuertako eta Zaramilloko harrobiak.

– Quadrako azpiestazio elektrikoa.

– Zallako hondakindegia.

2.– Paisaiaren Interes Bereziko Eremuen mugak II. eranskineko «Paisaiaren Interes Bereziko Eremuen mapa»n dago irudikatuta.

4. artikulua.– Paisaiaren kalitate-helburuak.

1.– Balmaseda-Zallako eremu funtzionaleko paisaiaren babesa eta kontserbazioa sustatzeko paisaiaren kalitate-helburuak hauek dira:

a) Lurraldea eta paisaia egituratzen duten multzo geomorfologikoak babestea, eremu funtzionalaren izaera naturalari berriz balioa emateko.

b) Paisaia-kalitatea eta bideragarritasun ekologikoa duten paisaia naturalak kontserbatzea.

c) Ibaien paisaiak lehengoratzea eta kontserbatzea lurraldeko ardatz natural gisa. Paisaia-loturen eta aisialdirako guneen eginkizuna sendotuko da.

d) Nekazaritza- eta abeltzaintza-paisaia babestea, bereizgarri egiten duten eta berezko identitatea ematen duten elementuen dibertsitatea bermatzeko.

e) Hiri-egitura antolatua sortzea, hazkunde trinkoak eta guzti.

f) Landa eta hirien mugetan, sarrerak eta ertzak sartzea erdiguneetan. Horietan, balio naturala zehaztuko da zuhaitzez beteriko zonak sarbidea egituratzeko elementu nagusi gisa.

g) Paisaian sartutako eraikuntza-tipologiaren multzoa sustatzea, ikuspegi-eragina murrizteko eta lekuko arkitekturara egokitu ahal izateko.

h) Erabilera industrialak, logistikoak, komertzialak, aisialdikoak edo hirugarren mailako beste-lako erabilerak espezializatzea. Lehentasunezkoak ez diren ikuspegi-zonetan daude, eta horien diseinuak bete egiten ditu hurbileko inguruak, identitateko eta ondarezko balioak galdu gabe.

i) Arkitektura tradizionala eta arkitekturaren elementuak lehengoratzea eta kontserbatzea, elementu erlijiosoak nahiz zibilak, balio identitarioak, ondarezkoak eta historikoak mantentzen direla bermatzeko.

j) Gizakien jardueren ondorioz aldaketak lehengoratzea, egokitzea eta integratzea (harrobiak, hondakindegia...).

k) Azpiegitura linealak eta telekomunikabideak paisaian integratzea eta egokitzea horien funtzionaltasuna baldintzatu gabe. Ikuspegi-eragin eta eragin ekologiko ahalik eta txikiena eragitea da helburua.

l) Ibilbide eta behatokiaren multzoa sortzea, ikuspegi garrantzitsuenak nabarmentzeko eta askotariko paisaia nabardurak deskubritu ahal izateko.

m) Ereku funtzionaleko sarbideen multzoa hobetzea, aberastasun natural eta kulturalari balioa emateko, eta mugako izaera emateko.

2.– Paisaiaren kalitate-helburu hauek paisaiaren zehaztapenetan garatzen dira, eta, edozein kasutan, sektoreko hirigintza- eta lurralde-plangintzaren oinarriko printzipioak dira.

3.– Paisaiaren kalitate-helburuak III. eranskineko «Paisaia Kalitate Helburu Helburua»n mugarituta daude.

5. artikulua.– Lurraldea eta paisaia egituratzen duten multzo geomorfologikoak babesteko zehaztapenak.

1.– Lurraldearen jatorrizko morfologia zaintzea, bereziki eskualdean dauden mendi-hegalena; honako hauek, hain zuzen: Ordunte mendiak eta Kolitzarako bideko ekialdeko inguruko mendiak, Armañon Parke Naturala hartzen duen kareharritzko arkua, Peña del Moro, Ales, Muñecas, Triano edo Grumeran mendiak, eta Eretzara doan zabalgunea, baita Ganekogorta mendigunea ere.

2.– Saihestea telekomunikazio-estazioen eta parke eoliken ondorioz gerta daitezkeen aldaketa geomorfologikoak, eta atzealdeko paisaia gailurraren lerroak desitxuratu ditzaketan bestelako elementuak jartzea.

3.– Saihestea berezitasun geomorfologikoak alda ditzaketen elementuak; hala nola eraikinak, azpiegiturak, eta, oro har, berezitasun horiek ikustea eragozten edo nabarmen zailtzen duten ozto-poak jartzea.

6. artikulua.– Paisaia-kalitatea eta bideragarritasun ekologikoa duten paisaia naturalak kontserbatzeko zehaztapenak.

1.– Baso autoktono nagusiei jarraitutasuna ematea: Sopeñako artadia, Ordunteko pagadiak, Kalerako pagadiak, Agueraren iturburua, Pandozales-Sabugal eta Remendon hariztia, Karrantza ibaiertzeko unadak eta basoak, Triano edo Grumeran mendi-magalak Galdamesko norabidean, eta Barrietas eta Mercadillo arteko basoak.

2.– Indargetze-eremuak sortzea dinamika naturalak balizko hirigintza-presioetatik babesteko, batez ere hiriguneen ondoko herrietan.

3.– Babesteko irizpideak sartzeari hirigintza-tresnetan helburu horrekin identifikatutako eremuetarako. Zehazki, lurzoru ez urbanizagarrian, «Babes Berezia» kategoria zehaztuko da.

4.– Berariaz zuhaitz-espezie autoktonoak landatzeko bokaziorik ez duten lurzoru partikularren dedikazioa bultzatzea.

5.– Baso-izaera eremu naturalei loturiko gizarte-kontzientzia sustatzea.

6.– Paisaia-interes bereziko eremuetan, baso-eremuek kontserbazio helburu bat izango dute, espezie autoktonoak sustatuta eta espezie aloktonoak sortzen diren eremuak arian-arian ezabatuta.

7.– Paisaian eragin handia eta/edo jende ugari etortzea jasan duten naturaguneak berreskuratzea espezie autoktonoak erabiliz. Eremu horiek izan daitezke bideak, bidexkak, gailur-eremuak eta ur-bazterrak.

7. artikulua.– Lurraldeko ardatz natural gisa ibaietako paisaiak lehengoratzeko eta kontserbatzeko zehaztapenak.

1.– Kadagua eta Kolita-Barbadun ibaiak lehengoratzeari; paisaia aldetik babestu beharreko ibilgutzat eta ibaiertzeko landaretzat jotzen direlako berez.

2.– Horiek lotzen dituzten bide berdeak sendotzea ibilbideei jarraikiz; izan ere, ibaietako paisaiatzat jotzen dira, eta, beraz, lehen mailako konektore ekologikotzat nahiz kokalekuen arteko lotura-sistematizat. Hala ere, ibai-ingurunea babestea eta berroneratzea lehenetsiko da, beste erabilera onargarri batzuen aldean.

3.– Paisaia integratzeko neurriak sartzeari ibaietako tartetean eragiten duten edo tarte horiek zeharkatzen dituzten obra publikoetan.

4.– Ibaiak hirigintza-antolamenduko ezinbesteko tresnatzat jotzen dira, kalitateko trantsizio-guneak justifikatzen dituztelako eraikitako zonaren eta ibaiertzaren artean. Trantsizio-gune horretan egongo dira lehentasunez espazio libreak lagatzeko lurzoruak, eta bermatu egingo da multzo berriak lotura izatea hirigunearen eta uraren artean. Horrenbestez, hirigintza-plangintzaren esparruan, kontu handiz jorratu beharko dira izaera nabarmentzeko eta paisaiaren balioari indarra emateko.

5.– Hiriguneen, hiri-inguruen eta industrialdeen zonaldeko ibaiertzetan degradatutako tarteari lehengoratzeari eta naturaltzeari. Lehentasuna emango zaie kutsaduraren seinale handiak dituzten eremuei.

6.– Ibaiertzak eta ur-laminak interes sozialeko zonatzat jotzea aisialdiko ibilbideetarako eta ibilbide pedagogikoetarako, bereziki ibaiertzeko espezieen gaineko ingurumen-hezkuntzari dagokionez edota uraren erabilera eta kontsumo arduratsuari dagokionez.

8. artikulua.– Dibertsitatea bermatzen duten nekazaritza- eta abeltzaintza-paisaiak babesteko zehaztapenak.

1.– Hirigintza-antolamenduko tresnetan babesteko kategorietan sartzea, Nekazaritza eta basogintzako lurralde-plan partzialaren (LPP) zehaztapenekin bat etorriz, nekazaritza eta abeltzaintzako eremu emankorrak eta erdiguneen ondoan daudenak. Hiri-inguruekin muga egiten duten eremuen helburua duten espazioek paisaia- eta ingurumen-kalitatea ematen dute.

2.– Nekazaritza-erakuntzetarako udal-plangintzan honako hauek ezartzea, nekazaritza eta basogintzako LPPren zehaztapenekin bat etorriz: zonako etengabeko tipologiekin eta materialekin bat etorriko diren kokapen-, osaera- eta eraikuntza-urratsak. Zehazki, nekazaritza-ustategietako egituraren, materialaren eta kolorearen diseinua arautuko da, bereziki esposizio handiko egoeretan.

3.– Hiri-eremuen barnealdean isolatutako nekazaritza-eremuak babestea eta kontserbatzea estetika- eta ingurumen-arloan balioa ematen duten elementu gisa.

4.– Murritz egingo da isolatutako eremuetan jarritako nekazaritza-erakinen kopurua.

5.– Ikuspegi nagusietatik urrunduta dauden biltzeko guneak aurkitzea, edo, halakorik ez badago, ezkutatze neurriak inplementatzea. Horri dagokionez, ustategietan gordetako elementuak (uzta, burdinak, plastikoak, zaborra...) ahalik eta modurik txukunenean jarriko dira.

9. artikulua.– Hazkunde trinkoaren bidez hiri-egitura antolatua sortzeko zehaztapenak.

Garapen berriak paisaian integratzen direla bermatzea hiriguneen inguru perimetraletan, baldin eta integrazio hori lurralde-plan partzial honekin bat hirigune finkatuen hazkunde-eredu konpaktuen arabera sustatu behar bada, ehun etenak saihestuta eta hiri-bilbearean hiri-garapen berrien artikulazioa bultzatuta. Hori honela gauzatuko da:

1.– Nukleoetako muga trazatua egitea forma geometriko argiarekin. Hala, erdigunea ez da behar baino gehiago haziko, eta zentzuzko forma eta muga emango zaio.

2.– Beste okupazio batzuk proposatzea jatorrizko erdigunearen ondoan.

3.– Erabiltzen ez diren eraikinak birgaitzea ekipamenduak edo etxebizitza berriak sortzeko lur-zoru berrien okupazioaren aurrean.

4.– Hiriaren jarraitutasuna saihestea, eta herrixka nahiz auzoei mugak eta nortasuna ematea.

5.– Saihestu egingo da espazio berriak erabiltzea; hiriko mugak elementu morfologikoetara atzeratuko dira, erdigunea trinkoago egiteko eta hiri-egituraren hutsuneak aprobetxatzeko.

6.– Erdiguneak mugatzen dituzten eta itxura trinkoa ematen duten ortu-inguruak, arboladiak, ibilguak eta magalak babestea.

7.– Argi eta garbi zehaztea urbanizazioan hirigunea edo erdigunea non hasten den. Asfaltozko zoladurak eta espaloiak kenduko dira erdigune guztian, eta bideak erdi-oinezko bihurtzeko, oztoporik gabe. Kanpoko espazio naturala ezberdindu egingo da.

8.– Udal-plangintzaren bidez, espazio libreen eta zuzkiduren lurzoruak gordetzea erdiguneko mugetan. Hala, gerriko berdea sortzeko laguntza emango da, baita erdigunea sendotzen ere.

10. artikulua.— Landa eta hiriko mugetan erdiguneetako sarrerak eta ertzak integratzeko zehaztapenak.

1.— Herrixketarako sarbideak eta horien mugak landa-inguruarekin integratzea elementu naturalen bidez, nagusiki zuhaitzen bidez. Hona hemen arreta berezia behar duten erdiguneetarako sarrerak:

- a) Zaramilloko erdigunerako sarrera.
- b) Kadaguatik Gordexolarako korridorearen saihesbide-errotanda (Ugarte auzoa).
- c) Mimetizerako sarrera (Zalla), Baularretik.
- d) Arangurengo (paper-fabrika) Inmakulada auzorako sarbidea.
- e) Balmasedako hegoaldeko sarrera Enkarterri etorbidetik.
- f) Ambasaguas auzorako sarrera Karrantzatik.

2.— Gomendatzea erdiguneetako sarbideetan azpiegiturek beste eskala eta material batzuk erabiltzea, zoladurak, uhinbikoak, seinaleak eta argiak erdiguneetan sartzeko landa-ingurura eta hiri-ingurura egokitzeko. Hainbat elementu erabili ahal izango dira; besteak beste, seinale baxuak eta errespetuzkoak, zeharkako argizatze-sistemak, erdi-oinezkoak izango diren urbanizazioak eta material noblez (harriz edo egurrez) eginiko oztopoak.

3.— Balioa ematea lehendik zeuden elementu naturalen sarbideei: ubideak, mendi-hegalak, zuhaitzak... Lagungarriak izango dira zuhaitzen lerrokadurak lehengoratzeko (bananondoak eta ezkiak) bide-ardatzetan. Zuhaitz bereziak jarriko dira, sarrerako espazioak adierazi ahal izateko.

4.— Sarreretan izaera hiritarra saihestea, errotanda handiak eta bestelakoak alde batera utzita. Landatarragoa izango da eskalari eta materialei dagokienez.

5.— Balioa ematea sarbideetan bereizgarriak izango diren elementu arkitektonikoei; besteak beste, zubiei, gurutzadurei, santutxoei, ermitei, saltokiei, nobleen etxeei, aduanei, bideko peoien etxeei, basozainen etxeei eta abarri.

11. artikulua.— Eraikuntza-tipologien multzoa sustatzeko zehaztapenak, ikuspegi-eragina murrizteko.

1.— Haran bakoitzeko herri-arkitektura imitatzeke eredutzat hartzea inguruari hobeto egokitzeko. Horretarako, zona bakoitzaren tipologiak era tradizionalen edo modernoan interpretatuko dira.

2.— Gomendatzea eraikinen gehieneko altuerak ez gainditzea beheko solairua gehi beste bi solairuko altuera; hau da, Enkarterriko ohiko estalki makurtuen erlaitza. Eremu hiritarrenetan, kanpoan geratuko da puntu honen gomendioa; hau da, Balmasedan, Zallan eta Gueñesen.

3.— Gomendatzea, bolumenari dagokionez, altxaeran bi zati daudela: aurrealde bertikala eta makurtua (edo estalkia); altuera osoan ia % 50ean banatuta daude, estalkiak eremu horretan eraikuntza-tipologiei (baserriak, gaztelar etxeak eta etxe truzianoak) dagokienez garrantzi handia hartzen duelakoan.

4.— Lur azpiko guztion aparkalekuak hiri-egituran integratzea, bolumena egungo topografiara egokituz eta sarbideak espazio publikoetara egokitzeko moduan diseinatu.

5.— Gomendatzea ohiko materialak erabiltzea; besteak beste, harlanduak, zarpiatuak, egurra, zeramika-teila; saihestu egingo dira estaldura industrialak, plakazko estaldurak eta metalezko

elementuak ateetan eta altzarietan, baita hormigoizko teilak, PVCzko eroaleak eta hormigoiz aurrefabrikatuak, bai leiho barrenetan eta kareletan, bai aireztatzeetan eta tximinietan.

6.– Urbanizazioan bide eta espazio publikoak erabiltzea: material naturalak, zarpiatuak, lauzak, galtzada-harriak, errekarriak, hormigoia... Saihestu egingo dira baldosa hidraulikoak, aurrefabrikatutako zintarriak, zoladura inprimatuak eta asfaltoak. Urbanizazio-eremuetan eta alde zaharretan, gomendatzen da espaloia eta galtzadaren arteko malda saihestea.

7.– Zeharka argiztatzea. Horretarako, fatxadak erabiliko dira erreflektore gisa, eta saihestu egingo dira gauean zerua ikustea eragozten duten babesak eta argi-kutsadura.

12. artikulua.– Erabilera industrial, logistiko eta komertzialak nahiz aisialdikoak edo hirugarren sektorekoak espezializatzeko zehaztapenak.

1.– Industrialdeen eta hirugarren sektoreko eremuen ikusmen-esposizioa gutxiagotzea.

2.– Urbanizatutako edo dagoeneko eraikitako azalaren ondoko hazkunde-eremu berriak paisaian integratzen direla bermatzea.

3.– Industrialdeetan, berriz ere kokatzea, pixkanaka, bizitegi-eremuekin nekez bateragarriak izan daitezkeen erabilerak dituzten industriak.

4.– Ikuspegi-oztopo naturalak sortzea espezializazio-eremuetan, hiri-lurzoruak lurzoru ez urbanizagarriarekin elkartzen diren lekuan.

5.– Industrialdeen egiturek, soslaiek eta akaberek ingurua errespetatzea; egurrezko egiturak edo itxitura arinak erabili ahal izango dira. Proposatzen da itxurak eta estalkia zuria edo grisa izatea, eta arreta ez deitzen ahaleginduko dira. Bolumenen geometria erregularra izango da.

6.– Urbanizazioan hesirik ez jartzea. Horien ordeaz, landare-hesiak jarriko dira. Argiak fatxadan sartuko dira argi-paldoak saihestuz. Gaueko argi-kutsadura ere saihestuko da.

13. artikulua.– Arkitektura tradizionala lehengoratzeko eta kontserbatzeko zehaztapenak eta balioa duten elementu arkitektonikoen zehaztapenak.

1.– Gomendatzea udalerri bakoitzeko plangintza-tresna orokorrak herri-arkitekturaren argazki-katalogoa eta arkitektura kultuagoa sartzea.

2.– Arkitektura kultura eta herri-arkitektura babestea, baita udalerrien ondare historikoa ere, hori dena plangintza orokorreko katalogoaren bidez. Katalogo horretan, ondarearen baitan lehengoratu beharreko oinarritzko elementuen zerrenda sartuko da. Jarraian zerrendatuko dira horiek:

a) PU Armañón-Alén.

– Mina Federica-ko meategi-instalazioen aztarnak.

– Alén – Muñecas meategi-instalazioen aztarnak.

– Erlijiosoa: Karmengo Ama Birjinaren ermita.

b) PU Galdames-Sopuerta.

– Castaño meategi-instalazioen aztarnak.

– San Esteban meategi-instalazioen aztarnak.

– Arenao meategi-instalazioen aztarnak.

– Erlijiosoa: Santa Cruz Barrieta eliza, Beziko eliza zaharra, eta San Silvestre (Larrea), Santa Lucía (Barrietas) eta Santa Águeda (Bezi) ermitak.

– Zibila: Dorre hauek: Urrutia, Alcedo I, Alcedo II, Puente, Llano, Garai, Casas, Peñonori, Acebal; Villa eta Larrea; Trueba etxea.

c) PU Lanestosa.

– Erlijiosoa: hilerri zaharra.

– Zibila: indianoen bi etxe abandonatuak, urtegia eta errota, eta Sangricesko etxe gotikoa.

d) PU Grumeran-Eretza mendiak.

– Haitzuloa - Urallaga meategia, Sauco herri meatzaria, Elvira herrixka.

– Erlijiosoa: Piedad de la Elvira ermita.

e) PU Turtzioz-Artzetales-Otxaran.

– Erlijiosoa: San Pedro de Santelices; Santa Isabel de Santa Maria; Karmengo Gure Ama (Mina Federica-n).

– Zibila: Santa Cruz jauregia (Llaguno), eta Sobrado eta Riba dorreak.

f) PU Gordexolako harana.

– Erlijiosoa: Inmaculada Concepción ermita.

– Zibila: Largatxa dorrea: Zubiete jauregia; Ubieta jauregia; Ibarako presa eta errota eta Arte-kona errota

g) PU Kadagua harana.

– Erlijiosoa: Pueblo de Dios eliza (Zaramillo), Magdalena ermita (Balmaseda) eta San Antonio ermita (Mella, Zalla).

– Zibila: Quadra dorretxea, Lazcano dorretxea, Jara dorretxea, Sologutxi dorretxea, Santxosolo dorretxea, Goikuria dorretxea, Barretaguren dorretxea, Terreros dorretxea, Maruriko dorretxea, Gobeako dorretxea, Mendietako dorretxea, Aretzagako dorretxea; Mella jauregia, Hurtado de Amezaga jauregia, Benta Lakabe jauregia.

h) PU Karrantzako harana.

– Erlijiosoa: San Miguel de Lanzas Agudas eliza; Nuestra Señora del Rosario eliza (Lama); San Sebastián ermita (Cezura); San Isidro ermita (Sobrepeña); Nuestra Señora del Carmen ermita (Bollain); San Antonio ermita (Santecillo) eta Humilladero ermita (Pontarrón).

– Zibila: Lama eta Ahedo jauregiak; Molinar, Sangrices eta San Esteban dorreak, eta Ambasaguas indianoen etxeak.

Elementu horiek behar bezala katalogatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitako Euskal Kultura Ondarearen Zentroari egingo zaio kontsulta.

3.– Landa-inguruko, inguru naturaleko edo paisaiaren inguruko ekipamendu publikoen, paradoreen, turismo landatarrerako etxeen eta interpretazio zentroen lehentasunezko kokapen gisa egungo eraikuntzak berrerabiltzearen edo birgaitzearen ondorioz ateratzen diren eraikinak.

4.– Paisaian balio historiko eta/edo sinboliko handia duten elementuekin loturiko erabilera publikoko azpiegiturak eta/edo zerbitzuen kontserbazioa, paisaia-egokitzapena eta balio-ematea bultzatzea.

5.– Hainbat ekimen sustatzea paisaia tradizionalaren bereizgarri diren arkitektura-elementuen dimentsio sozial, historiko, espiritual eta sinbolikoen gainean sentsibilizatzeko eta ezagutzak bereganatzeko.

6.– Sinergiak koordinatzea eta ezartzea kultura-ondarearen kontserbazioan eskumena edo zerikusia duten administrazio edo erakundeen artean.

14. artikulua.– Gizakien jardueraren (harrobiak, hondakindegia...) ondorioz paisaian izandako aldaketak lehengoratzeko eta integratzeko zehaztapenak.

1.– Erauzteko ustiaketa-instalazioak edo ikuspegiaren eragin handia duten bestelako elementuen ikuspegi-eragina gutxiagotzea (harrobiak, hondakindegia, etab), batez ere, paisaia-kalitatearen funts eszenikoak aldatzen dituzten kokaguneetan.

2.– Ikuspegi-oztopo naturalak sortzea paisaiari dagokionez eragin handia dakarten eremu espezializatuetan, ikuspegi-esposizioa gutxiagotzeko.

3.– Azalera biluzi guztiak birlandatzean, inguruan dauden eraketen antzeko landare-patroiak erabiltzea.

4.– Erauzketa-ustiaketei loturiko eraikinak, ahal bada, paisaian integratzea, ikusmen aldetik horrenbesteko esposizioz ez duten lursailetan, edo, bestela, egin beharreko lur-mugimenduak ahalik eta txikiak izango diren lekuetan. Horrez gain, kanpoko lorategia izatea.

5.– Itxita edo abandonatuta dauden erauzketa-ustiaketen balio potentziala aztertzea, eta zer orientazio posible dituen aztertzea, aldi baterako berrezartzeko.

15. artikulua.– Paisaiaren egitura linealak eta telekomunikabideak integratzeko eta egokitze zehaztapenak.

1.– Azpiegitura linealek eta telekomunikazioek paisaian izango duten integrazioa hobetzea eta egokitzea, erabilgarritasuna konprometitu gabe. Hona hemen azpiegitura lineal nagusiak:

a) Errepideak: BI-636 (Bilbao eta Gueñes), BI-630 (Balmaseda-Karrantza), N-629 (Laredo-Oña) Lanestosaren parean, BI-2604 (Sodupe) eta BI-2701 (Sopuerta).

b) Sare elektrikoa: 380 KV-ko sarea, Gueñesera doana Gordexolatik, 220 KV-ko sarea, bi noranzko dituen Herrerias haranean zehar, eta 30 KV-ko sarea, Jarako azpiestaziotik (Zallan).

2.– Azpiegitura berriek, ahal bada, lurzorua morfologia kontserbatuko dute, eta egungo erliebearen aldaketak gutxiagotuko dituzte (inausketak, lubetak...).

3.– Egungo korridoreetan, saihestu egingo da oztopo berriak sortzea eta lurra zatitzea.

4.– Azpiegituren iragazkortasuna hobetzea ikuspuntu ekologikoari dagokionez. Pasabide, itxitura eta korridore ekologikoak tartekatuko dira.

5.– Paisaiaren aldetik lehengoratzeko komunikabideen azpiegiturak. Horretarako, landare-heiak erabiliko dira.

6.– Ikuspegiari dagokionez, bide-azpiegiturekin loturiko merkataritza-jarduerak egokitzea integratzeko estrategia hauen bidez:

a) Lehendik zeuden elementuen eta elementu berrien artean jarraitutasuna bilatzea egungo jarraibideei erreferentzia eginez (tipologiak, bolumena eta abar).

b) Paisaiaren berezko elementuak tartean sartzea (landare-pantailak, orbanak eta beste), ezkutatze edo mimetizatzeko.

7.– Publizitate-errotuluen diseinua eta ezarpena arautzea errepideen inguruan. Horretarako, kontuan hartuko dira hurbilen dagoen ingurura egokitzeko irizpideak.

8.– Paisaia-balioekin lehengoratzea bigarren mailako erabilera izango duten errepideak. Ibilbide turistikoek ikuspuntu berria emango zaie.

9.– Balio natural bereziko eremu babestuei eta korridore ekologikoei nabarmen eragiten dieten tarteetan linea elektrikoak edo telekomunikazioko lineak lur azpian sartzeko aukera aztertuko da.

10.– Antenen eta kontrol-eraikinen tratamendu estetikoa bermatzea, ahalik eta ondoena integra daitezen atzealdeko ikuspegietan.

11.– Aireko azpiegiturek paisaian duten inpaktua gutxiagotzea (hala nola linea elektrikoak eta telefonikoak). Horretarako, behar izanez gero, garraio azpiegiturek zehaztutako trazatuen erabilera bultzatuko da edo, hori ezinezkoa denean, dagokien tresna sektorialen arabera korridoreetan sailkatuko dira.

12.– Antena igorleen eta kablerik gabeko seinaleen errepikagailuen inpaktua gutxiagotzea ikuspegi-arroetan, hondoetan edo mugarri adierazgarrietan. Horretarako, behar izanez gero, horiek pilotzea bultzatuko da. Era berean, antenen eta kontrol eraikinen tratamendu estetikoa ziurtatuko da, ikuspegi-hondoetan hobeto integratzeko.

16. artikulua.– Hainbat ibilbide eta behatoki sortzeko zehaztapenak.

1.– Honako ibilbide eta behatoki hauek Paisaia Unitateen arabera babestuko dira:

a) PU Armañón-Alén.

Ibilbideak

– Ibilbide Luzeak (GR): GR-123, GR-281.

– Honako ibilbide hauek: Karrantza haraneko ermitak; eta santutegi hauek: Nuestra Señora del Buen Suceso – Santa Cecilia de Santecilla – San Antonio de Santecilla – San Cipriano de Ranero.

– Turtzios-Artzentales-Otxarango ermiten ibilbideak: Santa Isabel (Cueto) - Trinidad (Gordon) – San Pedro (Turtzios) – San Roque – Santa Cruz Llaguno jauregia – Santa Cruz – San Miguel (Linares) – Elurretako Ama Birjina.

– Galdames-Sopuertako ermiten ibilbideak: Santa Lucía – San Luis (Alen) – Pilareko Ama Birjina (Alisal) – ibilbide erromatarra (Alisal) – galdaketa-labeak.

Behatokiak

– Gailurrak: Peña del Moro, Ranero, Armañón, Jorrios, Ventoso, Betayo, Alen, Mello.

– Behatzeko lekuak: Pozalaguako haitzuloak.

– Ermitak/elizak: San Cipriano (Ranero), Trinitatea (Gordon), Santa Cruz eliza, Santa Lucia (Barritetas), San Luis (Alen) eta Pilareko Ama Birjina (Alisal).

b) PU Galdames-Sopuerta.

Ibilbideak

– Ermiten 1. ibilbidea: Santa María (Txabarri) – San Silvestre (Larrea) – Loizaga dorrea– Santiago (Loizaga) – San Esteban – Santa Luzia – Magdalena – Pilareko Ama Birjina – San Roque (Akendibar) – San Francisco – San Antonio eta San Juan – Andra Maria (Txabarri) – San Cosme eta San Damián (Illeta) – San Bartolome (Lejarza).

– Ermiten 2. ibilbidea: Santiago (Loizaga) – San Roque (Carral) – Garai dorrea– Puente dorrea – San Martín (Carral) – San Martín – San Gadea – Alcedoko dorreak – Santa Cruz (Barrietas) – Santa Luzia – San Luis (Alen) – Pilareko Ama Birjina (Alisal) – ibilbide erromatarra (Alisal) – galdaketa-labeak – San Pedro (Baluga) – Santa Ana (Baluga) – Asunción (Mercadillo) – San Martín (Carral).

– Ibilbide erromatarra: Muñecasko mendatea – Pilareko Ama Birjina – galdaketa-labeak– San Pedro (Baluga) – Koltza ibaiko zubia – Asuncion (Mercadillo) – San Martín (Carral) – Loizaga jau-regia – Urrutia dorrea – San Bartolomé – Abellanedako juntetxea.

Behatokiak

– Ermitak/elizak: Santiago (Loizaga), San Esteban (Galdames), San Roque (Akendibar) eta Santa María (Txabarri).

c) PU Ganekogorta.

Behatokiak

– Gailurrak: Ganekogorta.

d) PU Lanestosa.

Ibilbideak

– Carlos V.a enperadorearen ibilbidea.

– Enkarterriko ibilbidea: San Ciprián – Treto – San Martín (Presa) – San Julián eta Santa basilika (Sangrices) – Lanestosa.

Behatokiak

– Behatzeko lekuak: Ubalgo mendatea.

– Ermitak/elizak: San Julian eta Santa Basilisa Eliza-plaza (Sangrices).

e) PU Grumeran – Eretza mendiak.

Behatokiak

– Gailurrak: Ganeran, Cepal tontorra, Eretza.

– Behatzeko lekuak: Urallaga.

– Ermitak: Magdalena.

f) PU Ordunte mendiak.

Ibilbideak

- Ibilbide Handiko Bideak (IH): GR-123.

Behatokiak

- Gailurrak: Zalama, Maza, Penalta, Salduero, Ordunte, Balgerri, Burgüño, Kolutza, Garbea.
- Ermitak: San Sebastián (Kolutza).

g) PU Turtzios – Artzentaletas – Otxaran.

Ibilbideak

– Ermiten ibilbideak: Santa Isabel (Cueto) - Trinidad (Gordon) – San Pedro (Turtzioz) – San Roque – Santa Cruz Llaguno jauregia – Santa Cruz – San Miguel (Linares) – Elurretako Ama Birjina – Ribako dorrea – Santa Isabel ermita – San Antolin ermita – Andre Maria (Traslaviña) – San Pedro (Santelices) – Santa Ageda ermita – Beziko eliza – Sobradoko dorrea – Gorgolas – Abellanedako juntetxea.

Behatokiak

- Behatzeko lekuak: Linesko San Miguel, Abellameda.
- Ermitak/eliza: Trinidad (Gordon), Santa Cruz eliza eta San Miguel (Linares).

h) PU Gordexolako harana.

Ibilbideak

– Dorreen ibilbidea eta Gordexolako ermitak: Santa Ageda – San Nicolás – Zaldu dorrea – Urtusuastegi dorrea – Zubiete dorrea – Oxirando dorrea – San Juan (Molinar) – Santa Isabel eta San Jorge – Gordonaga dorrea – Hurtado Ibarguen jauregia – Ibarguen dorrea – Allende Salazar dorrea – Santiago de Loizaga – Urdanegi jauregia – San Esteban – Irazagorria – Inmaculada ermita – Artekona burdinola jauregia – Dorre Beltza – Largacha.

– Goiko ibilbidea: Somocurcio – Rigadas – Ilso – Txabarri – San Juan (Berbikiz) – San Juan (Molinar).

Behatokiak

- Gailurrak: Beraskola.
- Ermitak: San Juan (Berbikiz) eta Santa Águeda (Zaldu).

i) PU Kadagua harana.

Ibilbideak

– Ermiten ibilbidea eta Salcedoko haraneko dorreak: San Bartolomé (Lejarza) – Magdalena Taramona – San Pedro Goikuria – Torre Goikuria – Norza – San Miguel eta Magdalena ermiten aztarnak – Santa Marina – Santa Marina ermitako aztarnak – Barretaguren dorreko aztarnak – San Lorenzo – Escarzaga – Maruri, dorrea eta errota – Magdalena – Zalla – Mendieta eta Aretzaga dorreak – San Pantaleón – Jara dorrea – Santxosolo – San Martín – Zubia eta dorrea (Anieto) – San Pedro Goikuria.

– Goiko ibilbidea: San Sebastián (Kolitza) – San Isidro (Pandozales) – Balmaseda – San Benito – Arbiz – Angostura – San Isidro (Zoquita) – La Breña – Somocurcio – Ilso – Tejera – Saldaza – San Juan (Berbikiz).

– Done Jakue Bidea: Zaramilloko zubia – Pueblo de Dios eliza – Lazcano dorrea – Lacabe saltokia – Quadrako zubia eta dorrea – Sodupeko biaduktua – Andalucía – Bolívar – Santxosolo dorrea – San Martín (aterpetxea) – Sologutxi – Santa María dorreak (Gueñes) – Roblako bidea – Aretzaga eta Mendieta dorrea – San Pedro Zariquete – Gobeo dorrea – Santa Ana Bolumburu – Santa Isabel La Herrera – Mellako jauregia eta ermita – Terreros dorrea – Magdalena ermita – Balmaseda – Rebollar.

– Ibilbide Handiko Bideak (IH): GR-123, GR-281.

– Galtzada erromatarra.

Behatokiak

– Gailurrak: Bandera gailurra, Ilso.

– Behatzeko lekuak: Berbizizko San Juan.

– Ermitak: San Lorenzo (Gueñes), La Magdalena (Zalla), San Pantaleón (Zalla), San Isidro (Zóquita), Berbizizko San Juan, Goikuriako San Pedro eta San Bartolome (Lejarza).

j) PU Karrantzako harana.

Ibilbideak

– Enkarterriko ibilbidea: Nuestra Señora del Buen Suceso santutegia – Santa Cecilia (Santecilla) – San Antonio (Santecilla) – San Cipriano (Ranero) – Nuestra Señora del Carmen (Bollain) – San Bartolomé (Canto Blanco) – San Cosme eta San Damián (Matienzo) – San Ciprián – Treto – San Martín (Presa) – San Bartolomé (Aldeacueva) – Santiago (Lanzas Agudas) – San Miguel (Lanzas Agudas) – San Pantaleón (Bernales) – San Juan (Pando) – San Isidro (Sobrepeña) – San Sebastián (Cezura) – La Cerca – Humilladero (Pontarrón) – Santuario Nuestra Señora del Buen Suceso – San Julián eta Santa Basilisa (Sangrises) – Lanestosa – Gogolas – San Sebastián (Kolitza).

Behatokiak

– Gailurrak: Ubal.

– Behatzeko lekuak: Suceso, Escrita eta Ubal mendatea.

– Ermitak/eliza/santutegia: Nuestra Señora del Buen Suceso santutegia, San Cipriano (Ranero), san Cosme eta San Damián (Matienzo), San Martín (Prado), San Bartolomé (Aldeacueva), San Miguel (Lanzasagudas) eta San Isidro (Sobrepeña).

2.– Hainbat jardueraren bidez egokitzea, seinaleztatzea, mantentzea eta zabaltzea lehendik zeuden behatokiak eta ibilbideak nahiz ezartzeko daudenak. Naturagune babestuetan kokatutako begiratokiek eta ibilbideek beren garapena egokitu beharko dute, naturagune babestuetan aplikatu beharreko araudia betetzeko.

3.– Hiriguneetatik hurbil ibilbideak sartzeko, eta hainbat tarte identifikatzea paisaia balioei dagokionez interesgarria dela hautematen diren lekuetan.

4.– Kontuan hartuko dira bertako paisaia-ondarea hobeto jasotzea ahalbidetzen duten ibilbideak eta behatokiak. Era berean, lotu egingo dira eraikin interesgarriak, behatokiak, interpretazio zentroak, hiri-inguruko parkeak eta aisialdirako eremuak.

17. artikulua.– Eremu funtzionaleko sarreren multzoa hobetzea zehaztapenak.

1.– Sarbideak hobetzea autonomia-erkidegoetatik eta inguruko eremu funtzionaletatik. Balioa emango zaio eremu funtzionalaren aberastasun naturalari eta kulturalari. Hona hemen arreta berezia behar duten sarrerek:

a) Gueñesko sarrera Bilbo Metropolitarretik (BI-636 errepidetik).

b) Gordexolarako sarrera Artziniegatik, A-2604 errepidetik (BI-2604).

c) Balmasedako sarrera Berron-etik C-6318 (BI-636).

d) Karrantzarako sarbidea Cadena auzotik CA-150 (BI-630).

e) Lanestosarako sarbidea Ramales de la Victoria-tik (N-629 errepidetik).

f) Sopuerta eta Galdameserako sarrera, BI-2701 errepidearen bidez, Bilboko Metropolitarretik (Muskiz).

2.– Saihestea industriarekin edo hirugarren sektoreko jarduerekin lotura duten eta ikuspegiaren eragin handia izango duten eraikinak.

3.– Bisitariei eremu funtzionalaren nortasuna ulertzen laguntzea. Horretarako, balio nagusiak eta erakargarritasunak seinaleztatuko dira.

4.– Lehentasuna ematea zuhaitz-ilarak landatzea, berreskuratzea edo mantentzea xede duten jardueri, zehazki, komunikazio-azpiegiturekin loturiko jardueri.

18. artikulua.– Paisaia-zehaztapenen aplikazioa eta garapena.

Paisaiaren zehaztapenak aplikatu egingo dira, eta dagozkion lurralde- eta hirigintza-plangintzako tresnen bidez garatuko dira.

ANTOLAMENDU-ARAUAK. I. ERANSKINA

Paisaia-unitateen mapa

https://www.euskadi.eus/y22-bopvmap/eu?conf=BOPV/D_2018_PAISAIA/BALMASEDA_mapak.json&lang=eu

ANTOLAMENDU-ARAUAK. II. ERANSKINA

Paisaiaren Interes Bereziko Eremuen mapa

https://www.euskadi.eus/y22-bopvmap/eu?conf=BOPV/D_2018_PAISAIA/BALMASEDA_mapak.json&lang=eu

ANTOLAMENDU-ARAUAK. III. ERANSKINA

Paisaiaren kalitate-helburuak aplikatzen dituzten eremuen mapa

https://www.euskadi.eus/y22-bopvmap/eu?conf=BOPV/D_2018_PAISAIA/BALMASEDA_mapak.json&lang=eu

IRAILAREN 18KO 133/2018 DEKRETUA, II. ERANSKINA

ABIAZIO ZIBILAREN ARLOKO ARAUDIA

Lurraldearen antolamendurako zatiko planaren aldaketa aplikatu eta garatzeko tresnek indarreko ondoko berariazko arloko araudian ezarritakoa bete behar dute.

1.– Abiazio zibilaren alorrean, sektoreko organo eskudunak espresuki eskatuta, hau da aplikatu beharreko araudia:

a) Balmaseda eta Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalari eragiten dioten Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoko gune mugatzaileek ezartzen dute eraikinek (eta haien elementu guztiek, hala nola, antenek, tximistorratzek, tximiniek, aire girotuko ekipoe, igogailuen kaxek, kartelek, apaindurek, etab.), lurrazalaren eraldaketek edo objektu finkoek (zutoinek, antenek, aerosorgailuek eta horien palek, kartelek, etab.) itsasoaren mailaren gainean gehienez ere izan dezaketen altuera, bai eta errepideen eta burdinbideen galiboa ere, salbu eta Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziaren (AESA) iritziz segurtasuna arriskuan ipintzen ez bada edo aireontzien operazioen erregularotasunari eragiten ez bazaio, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuan, zortasun aeronautikoei buruzkoa, jasotako salbuespenen arabera.

b) Aerosorgailuen instalazioari dagokionez, haien altuera dela-eta (palak ere kontuan hartu behar dira altuera hori kalkulatzeko) bermatu behar da ez dutela hausten Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoari buruzko araudia. Gauza bera aplikatu behar da energia elektrikoa garraiatzeko lerroetarako, telekomunikazioen azpiegiturarako (telefono-antena eta mikrouhin-loturak, kasurako), eta funtzionamenduagatik plataforma jasoetan kokatu behar diren beste egitura guztietarako. Hori guztia dela-eta, debekatu egiten da instalazio horiek eraikitzea, Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESA) alde aurretik baimena espresuki eman ez badu.

c) Apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako otsailaren 24ko 584/1972 Dekretuaren, zortasun aeronautikoei buruzkoa, 10. Artikuluaren arabera, egungo idazkeran, hainbat jarduera mugatzen dituen zortasun-eremu batean geratzen da Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoen lurrazalaren gaineko proiektzio ortogonalean dagoen azalera. Horren babespean, Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESA) jarduerak debekatu, mugatu edo baldintzatu ahal izango ditu, aireko operazioentzako edo instalazio erradioelektrikoen funtzionamendu egokirako arriskutsuak badira. Aukera hori izango du ere jarduera horiek ezarri edo egiteko aukera ematen duten lurzoruen erabilerei dagokienez, besteak beste:

- 1) Turbulentziak eragin ditzaketen oztopoak eraikitzea dakarten edo eragiten duten jarduerak.
- 2) Argien erabilera (proiektoreak eta laser-igorgailuak barne), arriskuak sor baditzakete eta nahasketak edo errakuntzak eragin baditzakete.
- 3) Azalera handi eta oso islatzaileak behar dituzten jarduerak, itsualdiak eragin baditzakete.
- 4) Aerodromoaren mugimendu-eremuko faunaren ekintzak areagotu ditzaketen jarduerak.
- 5) Edozein jarduera, erradiazio-iturri ikusezinak ezartzea eragiten badu edo komunikazio, nabigazio eta zaintza aeronautikoko sistemen funtzionamenduan interferentziak sor ditzaketen edo horien gaineko eragin negatiboa izan dezaketen objektu finko edo mugikorren presentzia badakar.
- 6) Kea, lainoa edo aireontzientzako arriskutsua den beste edozer fenomeno sortzen duten instalazioak ezartzea edo martxan jartzea dakarten edo eragiten duten jarduerak.

7) Aireratzeko edo airean egoteko bitartekoak erabiltzea, kirol-jarduerak edo beste edozein motakoak egiteko.

d) Kontraesana badago lurraldeko antolamendu-arauetan, edo antolamendu-arauen eta lurralde-planean jasotako planoen artean, zortasun aeronautikoek ezarritako mugek edo baldintzek lehentasuna izango dute plangintzan jasotako beste edozein neurriren aurretik.

e) Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalerako ezarritako lurralde-antolamendua garatzeko egiten diren hirigintza- edo lurralde-planen eta horien aldaketa edo berrikuspenen berri eman beharko zaio Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoei eragiten dieten alorrei dagokienez, Interes Orokorreko Aireportuen eta zerbitzu-eremuen Antolamenduari buruzko eta apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako abenduaren 4ko 2591/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa betez. Horretarako, txostena eskatuko da plangintzaren edo izapide baliokidearen lehen onarpena egin baino lehen. Nahitaezko txosten hori eskatzen ez bada edo kontrako erantzuna jasotzen bada, ezingo da plangintzaren behin betiko onarpena egin estatuaren eskumenei dagokien alorretan.

f) Salbuespen bezala, onartu ahal izango dira Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoak errespetatzen ez dituzten jarduerak dituzten antolamendu-planak eta -tresnak, baldin eta AESA-ren iritziz (aireportuko kudeatzailearen edo aireko nabigazioaren zerbitzu-hornitzailearen aurreko txostenarekin) aireontzien segurtasuna eta operazioen erregularitasuna arriskuan jartzen ez badira, zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 29.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, egungo idazkeran. Kasu honetan, Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiari egindako txostenaren eskariarekin batera, azterlan aeronautikoa ere aurkeztu ahal izango da.

g) Balmaseda-Zallako (Enkarterriak) eremu funtzionalerako ezarritako lurralde-antolamendua garatzeko egiten diren plangintza-tresna guztiek beren araudietan jaso beharko dituzte arestian aipatutako xedapen guztiak (beharrezkoak izango dira aireportu-gaietan Estatuako araudiaren lehentasuna egiaztatzeko) eta, bereziki, Bilboko aireportuaren Gidaplanaren xedapenak.

h) Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoaren eraginpeko eremu eta espazioetan, zeinahi eraikuntzaren, instalazioren (zutoinak, antenak, aerosorgailuak –palak barne–, eraikuntzarako behar diren bitartekoak –eraikuntzarako garabiak eta antzekoak barne–) edo landaketaren gauzatzeak Aireko Segurtasunaren Estatuako Agentziaren (AESA) alde aurreko aldeko akordioa beharko du, apirilaren 26ko 297/2013 Errege Dekretuak aldatutako 584/1972 Dekretuaren 30. eta 31. artikuluen arabera.

i) Salbuespen bezala, 584/1972 Dekretuko 33. artikuluan egun duen idazkeraren arabera, baimendu ahal izango dira zortasun aeronautikoentzat ezarrita dauden mugak gainditzen dituzten eraikinak edo instalazioak, betiere egiaztatuta geratzen bada, AESAren aburuz, segurtasuna arriskuan jartzen ez dela, aireontzien operazioen erregularitasunari eragiten ez zaiola edo jarduera apantailamendu bat dela. Ondorio horietarako, jarduketa berrien sustatzaileek azterlan aeronautikoa aurkezteko aukera izango dute.

j) Zortasun aeronautikoetan ez dauden eremuetan, lurrazalaren edo ur jurisdikzionalen itsas mailaren gainetik 100 metro edo gehiago altxatzen diren eraikinak edo egiturak eraikitze (postak, antenak, aerosorgailuak -palak barne-, etab.) eta horiek eraikitze beharrezko bitartekoak instalatzeko (eraikuntza-garabiak eta antzekoak barne) beharrezkoa izango da Aireko Segurtasuneko Espainiako Agentziak (AESA) iritzia ematea, aireko operazioen segurtasunean duen eraginari dagokionez, zortasun aeronautikoei buruzko 584/1972 Dekretuaren 8. artikulua egun duen idazkeran xedatzen duena betez.

k) Baldin eta zortasun aeronautikoak direla-eta Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalean aurreikusita dauden edo onar litezkeen eraikuntzak edo instalazioak gauzatu ezin badira, ez da kalte-ordainak pagatzeko inongo obligaziorik sortuko, ez Sustapen Ministerioarentzat, ez aireportuaren kudeatzailearentzat ez aireko nabigazioko zerbitzu-hornitzailearentzat ere.

2.— Dokumentazio grafiko bezala, Bilboko aireportuko zortasun aeronautikoen planoak jasotzen da jarraian. Horrek arau-izaera du.

2018ko irailaren 27a, osteguna

